



## AGINDUA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUARENA, ALDEZ AURREKO ONARPENA EMATEN DIONA ERAKUNDEEN JARDUERAN ETA KUDEAKETAN EUSKARAK DUEN GARAPEN-MAILA EBALUATZEKO, EGIAZTATZEKO ETA AITORTZEKO SISTEMA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI

2022ko maiatzaren 20ko Aginduaren bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak agindua eman zuen Erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen dekretua egiteko eta onartzeko prozedurari hasiera emateko.

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren agindua Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzara bidali zen, dekretua egiteko.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

### EBAZTEN DUT

**LEHENENGOA.-** Erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duen dekretuari alde aurreko onarpena ematea, ebazpen honetako I. eranskin moduan atxikitzen dena.

**BIGARRENA.-** Dekretuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, hasiera-aginduan eta 8/2003 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik, legea onartzearen ondorioetarako.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI  
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUA

